

**1/92 ZIRKULARRA, abenduaren 23koa, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Gizarte Segurantza Zuzendaritzarena, ekarpen definituko aurreikuspen indibidualen planak egiten dituzten Euskadiko Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeentzako errenta finkoko finantza-inbertsioak balioztatze irizpideei buruzkoa**

Gizarte Segurantza Zuzendaritzaren 3/90 Zirkularren (1990eko azaroaren 14koa) bidez, Euskadiko BASEei ahalbidetzen zaie finantza-inbertsioen balioztatzea merkatuko prezio errealean egitea, barne-kontrolerako ondorioarako.

Hala ere, bai urteotako esperientziagatik (interpretazio-arazoak atzemate ahalbidetu du) bai BASEen funtsak gauzatzen diren errenta finkoko finantza-inbertsioek dituzten berezitasunengatik, komeni da kontabilizazio-irizpideak errealitateara egokitzea, elkartekideen eskubideak babestearren.

Ildo horretan, lehenik eta behin argitu dezagun kontabilizazio-irizpideak merkatuko prezio errealean balioztatzearen helburua ez zela eskuratzeko-irizpidearen printzipioa bertan behera uztea; izan ere, oro har onartutako kontabilitate-printzipioak aplikatuta aurkeztu behar dituzte BASEek estatistika- eta kontabilitate-agiriak. Hala ere, barrurako lan-tresna gisa, kontabilitateko kontuak erabili ahalko dira, finantza-kontabilitate erreala eta merkatuko prezio errealean balioztatze eratorritako kontabilitate bateratze aldera; eta hori guztia, BASEek barne-lanetan erabiltzeko ezarri den kontabilitate-irizpide berria baliozkotu eta koherente egiteko beharrezkoak.

Bigarrenez, duela gutxi zorraren prezioek izan duten jaitsiera medio, BASEen beharrezko berezietara egokitutako balioztatze-bideak aztertu behar dira.

Hala, BASEen bidez gauzatutako banakako aurreikuspen-planak eperako aurrezki- eta aurreikuspen-programa kolektibo gisa eratzeko dira, gertaera jazotzen denean prestazioak eskaintzeko helburuarekin.

Azaldutakoaren harira, batetik, errenta finkoko balioek, etorkizunean prestazioak ordaintzeko, BASEen ondarean duten garrantzi ekonomikoa eratoritzen da; eta bestetik, erakunde horien xedearrekin bat, inbertsio horien epe luzea, finantza-aktiboak eragiketaren iraungitze-data arte eskuratu ohi baitira.

Finantza-inbertsioak balioztatze irizpidea 3/90 zirkularreko arauetara egokitu zuten BASEek errentagarritasun nominala lermatu dutela (zorraren prezioak jaitsi izanagatik) kontuan izanda; prestazioak jasotzeko eskubidea hartzearen dauden elkartekideen eskubide bateratuen zenbatekoak beharrik gabe gutxitu ez daitezke; BASEak, diru-merkatuko egoera jakinak aurrera ateratzearren epe luzean jar daitezke saihesteko, prestazio ekonomikoak ordaintzeko hartutako konpromisoengatik, epe luzean inbertitu behar badute; finantza-sistemari epe luzean aurrezki eskaintzearen diezaioketen erakunde-inbertitzaile gisa jardun ahal izatea BASEek. Horregatik guztiagatik, ondoren azaltzen diren arauak indarrean sartuko dira argitaratu eta hurrengo egunean:

1.- Arau hauek, 3/90 zirkularrean zehaztutakoak bezala, ekarpen definituko banakako aurreikuspen-planak dituzten BASEei baino ez zaizkie aplikatuko.

2.- BASEek 3/90 zirkularrean zehazten den irizpidea edota zirkular honetan ezartzen dena erabiltzea aukera dezaten ahalbidetzea. Irizpide bat hautatzen denean, denboran eta espazioan mantendu beharko da, irizpide hori aukeratzea eragin zuten arrazoiak aldatzen ez diren artean; kanpoko kontu-ikuskatzaileek gai horren inguruan beren iritzia eman beharko dute urteko kontuen kontu-ikuskaritzako txostenean. Ohiz kanpoko egoera hori gertatzen denean, eta kontabilitate-irizpidea aldatu aurretik, Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzaren berriazko onarpena beharko da.

3.- Errenta finkoko finantza-inbertsioetan, hitzartzean edo erostean izandako eskuratze-prezioaren arabera zenbatu ahalko dira.

- a) Hala ere, eskuratze-prezioa ordainketa-balioa baino handiagoa bada, ordainketa-balioaren arabera zenbatu beharko dira. Diferentzia urtero amortizatuko da, balioaren hondar-biziaren arabera eta balioaren barne-errentagarritasuneko tasaren arabera.
- b) Eskuratze-prezioa ordainketa-balioaren berdina edota baxuagoa bada, diferentzia barne-errentagarritasuneko tasaren arabera periodokatuko da.

4.- Zirkular honen xede nagusia da elkartekideen eskubideak zaintzea, eta BASEen irudia eta kaudimena mantentzea; aurreikuspenaren gaineko irudi negatiboa sortzea saihestu nahi da; helburua ez da BASEek, ekitaldia amaitutakoan, errentagarritasun egokia argitaratzea. Horregatik, zenbatzeko sistema aldatu duten eta ekitaldian lortutako errentagarritasuna argitaratu nahi duten erakundeek, publizitatean aipatu beharko dute zenbatzeko sistema aldatu dutela; bestalde, kanpoko kontu-ikuskaritzan frogatu egin beharko da lortutako errentagarritasuna.

Zirkular honen edukia betetzen ez bada, Euskadiko BASEetarako indarrean den legedian zehaztutako zigor-erregimena aplikatuko da.

*Vitoria-Gasteiz, 1992ko abenduaren 23a*

**GIZARTE SEGURANTZA ZUZENDARIA**

*Fidel Martínez Ruiz*